ZERBITZUAK PUBLIZATERIK GABEKO PROZEDURA NEGOZIATUAREN BIDEZ KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA

I. ALDERDI OROKORRAK ETA KONTRATUAREN KONFIGURAZIOA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Klausula-agiri honen arabera egingo den kontratuaren xedea hauxe da: AZPEITIKO EDUKIONTZIETAKO SARBIDE-KONTROLARI MANTENTZE-LANAK EGITEKO, KONEKTAGARRITASUNA KUDEATZEKO ETA WEB BIDEZKO SOFTWAREA AHALBIDETZEKO ZERBITZUA, espedienteko dokumentazio teknikoarekin bat etorrita; dokumentazio horrek kontratu-balioa du.

CPV kodea: 42961100-1. “Sarrera-kontroletako sarrailak eskuratzea ”.

Horretarako emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu da esklusibotasun-eskubideak babestearekin lotutako arrazoiak daudela, eta arrazoi horien arabera, kontratua enpresaburu jakin bati baino ezin zaio agindu, eta enpresaburu hori SEIGARBOST SL da.

Siendo así, se va a tramitar el presente procedimiento de contratación mediante procedimiento negociado con único empresario, al amparo de lo dispuesto en el apartado 2 de la letra a) del artículo 168 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014, a cuyos efectos se cursará invitación a SEIGARBOST S.L.

Hori horrela izanik, kontratazio-prozedura hau prozedura negoziatuaren bidez izapidetuko da, enpresaburu bakarrarekin, eta, horretarako, SEIGARST SL enpresak gonbitea jasoko du. Sektore

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 168. artikuluaren a) letraren 2. apartatuan xedatutakoaren babesean. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora

Kontratuaren xedearen izaera beragatik ez da bidezkoa lotetan zatitzea, hots, memorian jasotako justifikazioa. Izan ere, kontratuaren xedea bera da zatitu ezin den unitate funtzionala.

2. KONTRATATU BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA

Memorian azaltzen da zergatik egin duen Mankomunitateak agiri honetan aipatzen den kontratua.

3. EGIKARITZEKO EPEA

Agiri honetan aipatzen diren lanak gauzatzeko epea HIRU URTEKOA izango da, kontratua formalizatzen denetik kontatuta. Kontratua luzatu ahal izango da urtebetez. Nolanahi ere, kontratua burutzeko epea, luzapen eta guzti, gehienez ere 4 urtekoa izango da.

Zerbitzuak epe horretan burutzen ez badira, kontratista berandutzeegoeran dagoela joko da. Horretarako, ez da beharrezkoa izango administrazioak aldez aurretik betetzeko agindua ematea.

4. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

1.- Kontratuaren zenbateko osoa 83.707,80 eurokoa da, eta horietatik 69.180 € printzipalari dagokio, eta 14.527,80 €, %21eko BEZari (hiru urterako). Kopuru hori 2 zatitan banatzen da:

A) **Zati finkoa,** prebentziozko mantentze-lanei buruzkoa, hau da, segurtasun osoz garatuko diren lanei buruzkoa, 76.447,80 €-koa izango da, eta horietatik 63.18 € printzipalari dagokio, eta 13.267,8 €, BEZaren % 21ari dagokio. Aurrekontu hori hobetu ahal izango dute lizitatzaileek.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

Aurrekontu hori honako batura honen emaitza da:

Urtea	Prezioa
Lehenengo urtea	28.080 €/urtea+ 5.896,80 € (%21eko BEZ-a)
Bigarren urtea	14.040,00 €/ 1. seihilekoa + 2.948,40 € (%21eko BEZ-a) 7.020,00 €/ 2. seihilekoa + 1.474,20 € (%21eko BEZ-a)
Hirugarren urtea	14.040,00 €/ urtea + 2.948,40 € (%21eko BEZ-a)

Ondorio guztietarako, kontratuaren prezioak barne hartuko ditu kontratatutako prestazioa behar bezala gauzatzeko enpresa kontratistak egin behar dituen zuzeneko eta zeharkako gastu guztiak, plegu honetan aurreikusitakoarekin bat etorriz. Ondoren, ez da onartuko azken prezioan aurrez ikusi behar ziren kontzeptuen fakturazioa.

B) Mantentze-lan zuzentzaileei dagokien **zati aldakorr**a, hau da, sortzen diren beharren arabera egin beharreko lanak.

Kontratuaren zati honetarako gehienezko aurrekontua 7.260 eurokoa da (%21eko BEZa barne), hau da, 2.240 euro urtean. Kontratuaren zati honetarako proposamen ekonomikoa unitateko prezioei egokituko zaie. Elementu bakoitzeko gehieneko prezioa hau izanen da:

- UP: 290 €/alea
- Ixteko motorra: 55 €/alea
- Kakoa: 16 €/alea
- Kablea: 50 €/alea
- Batería: 50 €/alea
- Eguzki plaka: 40 €/alea
- Lanorduko prezioa: 50 €/ordua

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia 85.220,00 eurokoa da, BEZa kanpo.

Aplikatutako kalkulu metodoa:

a- Luzapenen kopurua (BEZ-a kanpo): 63.180,00 € + 6.000,00 €

b- Importe de las prórrogas (IVA excluido) 14.040,00 € + 2.000,00 €

c-Aurrikusitako aldaketen kopurua (BEZ-a kanpo) 0 €

d- Lizitatzaileei ordaindu beharreko prima edo sariak (BEZ-a kanpo): 0€

e- Balizko aukeren kopuruak (BEZ-a kanpo): 0€

5. FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, aurreikusita dago urteko aurrekontuaren konturako finantzaketa, 1.0000.226.162.10.99 2021 "Sarbide-elektronikoaren mantentzen lanak" aurrekontu aplikazioan. Halaber, aurrekontuen arloko eskumena duten organoak behar diren kredituak ezarriko ditu kontratu honek eragingo dien hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan.

6. RÉGIMEN DE PAGOS

El pago del precio del contrato se realizará mensualmente contra la presentación y conformidad de la correspondiente factura, y en la siguiente forma: 30 días tras la aceptación de la factura electrónica.

SPKLren hogeita hamabigarren xedapen gehigarriaren arabera, eta dagozkion fakturetan jasotzearren, honako hau adierazi behar da: DIR3: L05200015 da kontabilitate publikoaren arloan eskumena duen organoa; DIR3: L05200015 da kontratazio-organoa, eta DIR3: L05200015 da unitate hartzailea.15

7. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratu honetan, ez dira berrikusi behar prezioak, SPKLren 103.1 artikuluari jarraituz.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

8. BERMEAK

Kontratuaren adjudikaziodunak behin betiko bermea jarri behar du, bere gain hartutako betebeharrak beteko dituela bermatzeko. Bermearen zenbatekoa adjudikazioaren zenbatekoaren % 5 izango da, BEZa aparte.

Berme hori jartzeko epea 16. klausulan aipatutako eskakizunean adierazitakoa izango da. SPKLren 108. artikuluan ezarritako bitartekoetatik edozein erabiliz jarri ahal izango da bermea. Bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoak erabil daitezke bermea jarri dela egiaztatzeko. Baldintza hori lizitatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik betetzen ez bada, administrazioak ez du adjudikazioa beraren alde emango.

Kontratuaren adjudikaziodunak behin betiko bermea jarri behar du, bere gain hartutako betebeharrak beteko dituela bermatzeko. Bermearen zenbatekoa adjudikazioaren zenbatekoaren % 5 izango da, BEZa aparte.

II. KONTRATATZEKO PROZEDURA

9. ADJUDIKAZIO-PROZEDURA

Kontratu hau publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatuko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 166. artikulutik 171. artikulura artekoetan ezarritakoaren arabera, lege horretako 168. artikuluko 2a letran jasotako kasua baita.

Plegu honen 16. klausulan adierazitako kontu ekonomikoaren gainean negoziatuko da parte-hartzaileekin.

10. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA

Lizitazio hau bitarteko elektronikoz izapidetuko da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoari jarraituz, salbu eta prozedura honetako parte-

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

hartzaileekiko negoziazio-faseari dagokienez, hura baliabide telematikoen bidez zein aurrez aurre egin ahal izango baita. Horrenbestez, udalaren eta lizitatzaileen arteko harremana ere bide horien bitartez egingo da.

Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko laguntza-zerbitzua: Telef. 945016298 (Eusko Jaurlaritza)

11. JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK

Espediente honi lotutako jakinarazpen eta komunikazio guztiak bitarteko elektronikoz egingo dira, honako prozesu honi jarraituz:

1) **Hartzailearen esku jartzea.**

2) Jakinarazpenaren edo komunikazioaren edukiak eskuratzeko bidea.

Epeak egun honetatik hasiko dira zenbatzen: jakinarazpena egiten den egunetik (jakinaraztearen xede den egintza egun berean argitaratzen bada kontratatzaile-profilean), edo jakinarazpena jasotzen den egunetik (egintza ez bada egun berean argitaratzen kontratatzaile-profilean).

Jakinarazpena eskuragarri jarri eta hamar egun naturalen epean hartzaileak onartu ez badu edo uko egin badio, iraungitzat joko da, eta betetzat joko da jakinarazteko izapidea.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratazio-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko zein juridikoek, baldin eta ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen teknikoa edo profesionala badituzte eta ez badaude sartuta SPKLren 71. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetako batean ere. Kaudimena 16.5 klausulan ezarritako bitartekoen bidez egiaztatuko eta ebaluatuko da.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

Halaber, nork bere izenean edo baimendutako ordezkari baten bitartez har dezakete parte (ordezkariak berariazko ahalorde askietsia eduki behar du). Pertsona juridiko bateko kideren bat aritzen bada haren ordezkari, agiri bidez frogatu beharko du baduela horretarako ahalmena. Kasu batean zein bestean, ordezkariari ere eragiten diote lehen aipatutako kontratatzeko ezgaitasun horiek.

Pertsona horiek, halaber, kontratu honen xede den jarduera edo prestazioa gauzatzeko behar den enpresa- edo lanbide-gaikuntza eduki behar dute.

Pertsona juridikoak kontratuaren esleipendun izan ahal izateko, kontratuaren prestazioak beren estatutuen edo sortze-arauen arabera berezkoak dituzten helburuen, xedearen edo jarduera-eremuaren barruan egon behar dira.

Klausula honetan aipatzen diren kontratatzeko gaitasunari eta debekurik ezari buruzko inguruabarrak eskaintzak aurkezteko azken egunean izan beharko dira, eta kontratua burutzen den unean iraungo dute.

13. ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK

Honako hauek dira kontratua adjudikatzeko oinarri izango diren eskaintzak balioesteko irizpideak eta haien haztapena:

a) Prezioa: gehienez 55 puntu.

b) Softwarean eta datu basean izandako gertakariak konpontzeko epemuga: gehienez 15 puntu.

c) Ordezko piezak entregatzeko epea: gehienez 15 puntu.

d) Sistema berritzeko piezen hornikuntza epea: gehienez 15 puntu.

14. KONTRATAZIO MAHAIA

Mankomunitateko kontratazio-mahai iraunkorra izango da.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

Horrez gain, Mahaiak eskatutako teknikariak ere bertaratu ahal izango dira, aholkularitza-lanak egiteko.

15. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA, EZAUGARRIAK ETA MODUA

Proposamenak elektronikoki aurkeztu beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoko Plataformaren bidez, prozeduran parte hartzeko gonbit-idazkian adierazitako epean; gonbita plataforma horren bidez ere egingo zaie kontratua lortzeko egokitzat eta gaitutzat jotzen diren enpresei.

Udalaren kontratatzaile-profilean, zeina Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoko Plataforman baitago, eskuragarri egongo dira prozedura honetako agiri eta dokumentazio osagarriak. Hauxe da kontratatzailearen profilaren helbidea: www.urolaerdia.eus

Hautagaiek eta lizitatzaileek informazio gehigarria eskatzen badute klausula-agiriei edo, hala badagokio, dokumentazio osagarriari buruz, parte hartzeko eskaerak edo proposamenak jasotzeko ezarritako muga-eguna baino sei egun lehenago emango zaie informazio gehigarri hori beranduenez, baldin eta gutxienez proposamenak jasotzeko muga-eguna baino 12 egun lehenago egin badira eskariak.

SPKLren 136.2 eta 136.3 artikuluetan xedatutakoaren arabera, klausula-agiriei edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeetan entregatzerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko aldez aurretik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo klausula-agiriari erantsitako dokumentazioa *in situ* kontsultatu behar bada, proposamenak jasotzeko epea luzatu egingo da, ukitutako hautagaiek eskaintzak egiteko behar duten informazio guztia jasotzeko egokitzat jotzen den adina.

Lizitazio-prozedura honetan, ez da onartuko eskaintzarik gorago adierazitako bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu ezean. Horretarako, ezinbesteko baldintza da Euskal Autonomia

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Plataformako edo Sektore Publikoko Kontratazio Plataformako erabiltzaile erregistratua izatea.

Eskaintza bateko dokumenturen bat ezin bada behar bezala ikusi, gorabehera hori jakinarazi eta gehienez 24 orduko epea izango du lizitatzaileak fitxategi akastunean zegoen dokumentua formatu digitalean aurkezteko. Geroago aurkeztutako dokumentu horrek ezin izango du aldaketarik izan eskaintzan aurkeztutako jatorrizko dokumentuaren aldean. Kontratazio-organoak ikusten badu dokumentuak aldaketaren bat izan duela, baztertu egingo da lizitatzailearen eskaintza.

Proposamenek administrazio-klausula partikularren agiri honetan ezarritakoa bete beharko dute. Proposamena aurkezteak berekin dakar parte-hartzaileak baldintzarik gabe onartzea klausula edo betekizun horiek, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe, negoziazio fasean gerta litezkeen ondorioak gorabehera. Halaber, proposamenak aurkezteak berekin dakar kontratazio-mahaiari eta, hala badagokio, kontratazio-organoari, baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko datuak kontsultatzeko.

Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu; dena den, aldaerak onartu ahal izango dira. Halaber, ezin izango du beste aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez inolako proposamenik aurkeztu, baldin eta aurretik bakarka aurkeztu badu, ezta aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan egon ere. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko lizitatzaile horrek izenpetutako proposamenik.

Lizitatzaileek konfidentzial izenda dezakete eskaintzak egitean berek emandako informazioaren parte bat, informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legeriak xedatutakoa eta SPKLn adjudikazioaren publizitateari buruz eta hautagaiei nahiz lizitatzaileei eman behar zaien informazioari buruz dauden xedapenak gorabehera; bereziki, hori egin ahal izango dute beren sekretu tekniko edo komertzialei eta haien alderdi konfidentzialei dagokienez. Udalak ezin izango du informazio hori zabaldu lizitatzailearen baimenik gabe.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

Proposamenak gutun-azal elektroniko batean aurkeztu behar dira, izenburuan hau jarrita: «AZPEITIKO EDUKIONTZIETAKO SARBIDE-KONTROLARI MANTENTZE-LANAK EGITEKO, KONEKTAGARRITASUNA KUDEATZEKO ETA WEB BIDEZKO SOFTWAREA AHALBIDETZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO PUBLIZITATERIK GABEKO PROZEDURA NEGOZIATUAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA». Lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta egon behar du gutun-azalak, eta honako dokumentu hauek izango ditu:

a) Posta elektronikoko helbide gaitua.

Posta elektronikoko helbide gaitu bat izendatu behar da, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera; helbide horretara igorriko dira kontratazio-espediente honetatik eratorritako jakinarazpenak.

b) Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena.

Adierazpen horretan, lizitatzaileak adieraziko du betetzen dituela bai administrazioarekin kontratatzeko legeak ezarritako baldintzak, bai kontratua lortzeko klausula-agiri honetan ezarritako eskakizunak, bereziki 12. eta 16.5 klausuletakoak. Adierazpena plegu honi erantsitako ereduaren araberakoa izango da.

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen egiaztagiria.

Dena den, prozedura ondo burutzen dela bermatzeko, kontratazio-mahaiak edo kontratazio-organoak lizitatzaileei eska diezaieke dokumentazioa aurkez dezaten kontratuaren adjudikazioduna izateko klausula-agiri honetan eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko, kontratua adjudikatu aurreko edozein unetan.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

c) Aldi baterako enpresa-elkarte gisa (ABEE) aurkezten diren eragile ekonomikoen kasuan, hura osatzen duten partaideetako bakoitzak aurkeztu beharko du bere erantzukizunpeko adierazpena. Halaber, konpromisoa aurkeztu beharko dute adjudikazioa lortuz gero aldi baterako enpresa-elkartea formalki eratzeko, eta zehaztu beharko dute partaide bakoitzaren izena eta zer egoera eta zer partaidetza izango duen aldi baterako enpresa-elkartean.

d) Baldin eta, SPKLren 75. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritzen bada, horietako bakoitzak ere aurkeztu beharko du erantzukizunpeko adierazpena.

e) Loteka zatitu bada, eta bakoitzak kaudimen-eskakizun ezberdinak baditu, erantzukizunpeko adierazpen bat emango da sorta bakoitzeko, edo kaudimen-eskakizun berberak dituen sorta multzo bakoitzeko.

Proposamenak aurkezteko epea amaitzean, egiaztatuko da ea betetzen diren legeak eskatutako izaeraren, gaitasunaren eta kaudimenaren betekizunak.

f) Proposamen ekonomikoa, II. eranskineko ereduaren araberakoa.

g) Proposamen/eskaintza teknikoa, gutxienez honako hauek bilduko dituena:

- Eskainitako zerbitzuaren ezaugarriak eta baldintza zehatzak.
- Lan-metodologiaren deskribapena eta mantentze-lanen plangintza, mantentze-eragiketen deskribapena barne.

Kontratazio publikoan zenbait klausula sozial sartzeko, apirilaren 7ko 3/2016 Legean xedatutakoa betetzeko, ohartarazi behar da kontratuan, eman beharreko zerbitzuei dagokienez, indarrean dauden eta lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikatzekoak diren legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapenak bete behar direla.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

Testuinguru horretan, proposamen teknikoan aurreikusitako dokumentazioan, lizitatzaileak adieraziko du zein hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei, esleipendun izanez gero. Kontuan izan esleipendunaren betebeharra dela langileen soldata baldintzak betetzea, aplikatu beharreko sektoreko hitzarmen kolektiboaren arabera.

h) Klausula-agiri honetako 13. klausulan adierazitako adjudikazio-irizpideei buruzko dokumentuak.

16. AURKEZTUTAKO PROPOSAMENEN AZTERKETA, LIZITATZAILEEKIKO NEGOZIAZIOA ETA ADJUDIKAZIO-PROPOSAMENA

Proposamenak aurkezteko epea igarota, SPKLren 169. eta 170. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, honako jardun hauek egingo dira:

1. ALDEZ AURREKO ESKAKIZUNAK BETETZEAREN AZTERKETA

Kontratazio-mahaiak parte hartzeko eskaerak irekiko ditu elektronikoki, eta haietan sartutako dokumentazioa aztertuko du. SPKLren 141.2 artikulua aplikatuz, mahaiak, zuzentzeko moduko akatsak aurkitzen baditu dokumentuetan, ukitutako lizitatzaileei jakinaraziko die, eta hiru egun naturaleko epea emango die akats horiek zuzentzeko.

Ondoren, administrazio-klausula partikularren agiri honetan ezarritakoaren arabera eskatzaileen izaera, gaitasuna eta kaudimena egiaztatuta, kontratazio-mahaiak aukeratuko du zeinek jarraitu behar duten prozeduran.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

2. ONARTUTAKO ESKAINTZEN HASIERAKO BALIOESPENA

Ondoren, zerbitzu tekniko negoziatzaileak hasierako -balioespen-txostena egingo du; horretan, adjudikazio-irizpideen arabera aztertuko ditu jasotako eskaintzak, eta adieraziko du bakoitzak zer ezaugarri eta onura dituen.

Txostenean ez da jasoko lizitatzaileek konfidentzial izendatu duten informazioa, bereziki sekretu tekniko edo komertzialak.

3. LIZITATZAILEEKIKO NEGOZIAZIOA

Negoziazio-fasearen helburua onartutako lizitatzaileek aurkeztutako eskaintzetan hobekuntzak bilatzea izango da, eta alderdi ekonomiko honi buruzkoa:

- Prezioa

1) Zerbitzu tekniko negoziatzaileak negoziatzera gonbidatuko ditu lizitatzaileak; adieraziko die zer alderdi negoziagarri jaso diren agiri honetako 9. klausulan, eta jakinaraziko die zer ezaugarri eta onura dituzten beren eskaintzek eta jasotako gainera eskaintzek, gorago aipatutako hasierako balioespen-txostenaren arabera. Komunikazio horretan ez da identifikatuko nork egin duen eskaintza bakoitza

   Lizitatzaileek beren eskaintzetan emandako helbide elektronikora igorriko dira negoziatzeko gonbidapenak.

2) Lizitatzaileek hiru egun balioduneko epean erantzun beharko dute, eta beren hasierako eskaintza hobetu edo bere hartan mantendu; erantzuna kontratazio-organoari igorri behar diote, gutun-azal elektroniko batez.

   Eskaintza berriek zehazki adierazi behar dute zer hobekuntza eskaintzen duten, eta ez da onartuko eskaintza generikorik gainerako lizitatzaileek eskaini duten eskaintza onuragarrienaren baldintzak hobetzeari buruz.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

3) Eskaintza berriek ematen duten emaitza kontuan hartuta, deia egin daiteke negoziazio-txanda gehiagotara, elektronikoki zein aurrez aurre, hobekuntza gehiago lortze aldera. Negoziazio-txanda bakoitzaren aurretik, aurreko txandan lortutako emaitzen berri emango zaie lizitatzaile guztiei, betiere zein lizitatzailek egin duen zein eskaintza adierazi gabe.

4) Zerbitzu tekniko negoziatzaileak, edo, bestela, kontratazio-organoak, negoziazioak amaitzea erabakitzen duenean, zerbitzu horrek akta bat egingo du zer jarduketa egin diren azaltzeko, eta txosten bat, zer emaitza lortu diren zehazteko; ondoren, kontratazio-mahaiari helaraziko dio espedientea.

Negoziazioan, zainduko da lizitatzaile guztiek tratu bera jaso dezatela. Bereziki, ez da bereizkeriaz emango lizitatzaile batzuei besteen aldean abantaila eman diezaiekeen informaziorik.

Negoziazioak egiten ari dela, haien eskaintzak baztertu ez diren lizitatzaile guztiei idatziz jakinaraziko zaie egiten den edozein aldaketa, espezifikazio teknikoei dagokienez edo kontratazioaren beste edozein dokumentaziori dagokionez (salbu eta eskaintza guztiek bete beharreko kontratuaren xede den prestazioaren gutxieneko betekizunak ezartzen duena); hiru egun balioduneko epea emango zaie berrikusteko eta eskaintza berria aurkez dezaten

Nolanahi ere, kontratuaren xede den prestazioaren gutxieneko baldintzak ez dira negoziatuko.

Prozedura egiten ari dela, gainerako lizitatzaileei ez zaizkie emango hautagairen edo lizitatzaileren batek komunikatu dituen datu konfidentzialtzat joak, berak aldez aurreko baimena eman gabe.

4. BEHIN BETIKO ESKAINTZAK ESKATZEA, JASOTZEA ETA BALIOESTEA

Concluida la fase de negociación, la Mesa de Contratación informará a todos los licitadores y establecerá un plazo de tres días hábiles para la presentación de ofertas nuevas o revisadas.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

Negoziazio-fasea amaitu ondoren, kontratazio-mahaiak horren berri emango die lizitatzaile guztiei, eta hiru egun balioduneko epea ezarriko du eskaintza berriak edo berrikusiak aurkezteko.

Behin betiko eskaintzak jaso ondoren, kontratazio-mahaiak egiaztatuko du betetzen dituztela gutxieneko eskakizunak eta klausula-agirian ezarritako baldintza guztiak; balioetsiko ditu, ezarritako adjudikazio-irizpideen arabera; sailkatuko ditu, eta adjudikazio-proposamena aurkeztuko dio kontratazio-organoari.

Kontratua adjudikatzeko proposamenak ez du inolako eskubiderik sortuko proposatutako lizitatzailearen alde; ez du eskubiderik eskuratuko administrazioaren aurrean harik eta kontratua formalizatu arte.

Eskaintzak lehenago balioetsiko dira balio-iritzietan oinarritutako irizpideen arabera, eta ondoren automatikoki zenbatestekoak diren irizpideen arabera.

5. LEHEN SAILKATUARI ERREKERIMENDUA EGIN

Aurreko jardunak egin ostean, kontratazio-zerbitzuek errekerimendua egingo diote lehen sailkatuari ekintza hauek egiteko edo dokumentu hauek aurkezteko, hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera:

a) Parte-hartzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiri nazionalaren edo pasaportearen fotokopia. Horrez gain, beste pertsona edo entitate baten izenean jardunez gero, notario-ahalordea, zeina udalak askietsiko baitu.

b) Lizitatzailea pertsona juridikoa denean, eraketa- edo aldaketa-eskritura beharko da, kasuan kasukoa, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, aplikagarri zaion merkataritza-legeriaren arabera inskribatuta egotea eska daitekeenean. Hala ez bada, jarduteko gaitasuna frogatzeko honako hauetako bat aurkeztu

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

behar da: dagokion erregistro ofizialean inskribatutako eraketa-eskritura edo -dokumentua, estatutuen agiria edo sortze-egintzaren agiria, zeinean zehaztuta egon behar baita zer arauk erregulatzen duten beraren jarduera.

Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europar Batasuneko kide den beste estatu bateko herritarrak, dagokien erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, egoitza daukaten estatuko legerian ezarritakoaren arabera, edo erantzukizunpeko adierazpen baten edo egiaztagiri baten bidez, aplikatzekoak diren Europar Batasuneko xedapenei jarraituz.

Atzerriko gainerako enpresaburuek, jarduteko gaitasuna dutela egiaztatzeko, Espainiak dagokion estatuan duen Diplomazia Misio Iraunkorraren txostena aurkeztu beharko dute, edo enpresaren egoitza dagoen lurraldeko Kontsuletxeko Bulegoaren txostena.

c) Egiaztatu behar du alta emanda dagoela jarduera ekonomikoen gaineko zergan, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, alta-agiria aurkeztuz, urteko ekitaldikoa bada, edo ekonomia-jardueren gaineko zergaren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Betiere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

d) Kaudimena egiaztatzea:

- Ekonomia- eta finantza-kaudimena, honela egiaztatuko da:

1. Lanbide-arriskuengatiko kalte-ordainen aseguru bat, eskaintzak aurkezteko epea amaitu arte indarrean egongo dena, gutxienez **93.500,00 euroko**a. Horrez gain, aseguru hori berritzeko edo luzatzeko konpromisoa ere hartuko da, kontratua gauzatzen den bitartean estaldura mantenduko dela bermatzeko. Baldintza hori bete duela ulertuko du bere eskaintzarekin eskatutako asegurua harpidetzeko konpromiso loteslea duen lizitatzaileak edo hautagaiak, esleipendun izanez gero.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

Baldintza hori aseguratzaileak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da. Ziurtagiri horretan, aseguratutako zenbatekoak eta arriskuak eta aseguruaren mugaeguna jasoko dira, bai eta asegurua sinatzeko, luzatzeko edo berritzeko konpromiso loteslearen agiriaren bidez ere, hala dagokionean.

- Gaitasun teknikoa edo profesionala, honela egiaztatuko da:

1. Azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lan garrantzitsuenen zerrenda, horien zenbatekoa, datak eta hartzailea, publikoa zein pribatua, adierazita; gutxienez antzeko zerbitzu edo lan bat egin izana egiaztatu beharko da. Hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira egindako zerbitzuak edo lanak; hartzailea subjektu pribatu bat denean, hark emandako ziurtagiri baten bidez, edo, halakorik ezean, enpresaburuaren adierazpen baten bidez; hala badagokio, agintari eskudunak zuzenean jakinaraziko dizkio ziurtagiri horiek kontratazio-organoari.

2. 2. Lizitazio prozeduran parte hartzeko, patenteen erregistro hauek eduki beharko dira:

A) ES1238089 Y (emakida-data: 2020/02/11)
B) ES1250855 Y (emakida-data: 2020/10/22)
C) ES1216782 Y (emakida-data: 2018/11/08)
D) ES1190633 Y (emakida-data: 2017/11/17)

Ezinbestekoa da patente horiek babesten dituzten sarrailetako ordezko piezak eta sistema elektronikoak garatu eta sortzea; beraz, ezinbestekoa da jabetza intelektual hori izatea kontratua egiteko.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

e) Zenbait enpresaburu Aldi Baterako Enpresa Batasuna eratuz aurkezten badira lizitaziora, enpresa horietako bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu, aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Halaber, ABEEko kide bakoitzak egingo lukeen xedearen zatia adieraziko dute proposamenean, kide guztien kaudimen baldintzak zehaztu eta egiaztatzeko.

f) Atzerriko enpresentzat, kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, Espainiako edozein ordenatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren jartzen dela dioen adierazpena, eta, hala badagokio, lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten diona.

g) Zerga arloko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzea, edo kontratazio organoari baimena ematea zuzenean eskuratzeko.

h) Behin betiko bermea jarri izanaren egiaztagiria.

Aurreko a), b) eta d) idatz-zatietan adierazitako inguruabarrak egiaztatzeko, Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroak, Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialak edo Erkidegoko ziurtagiri batek emandako ziurtagiria aurkeztu ahal izango da, SPKLren 96. eta 97. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Atal honetan aipatutako ziurtagiriak elektronikoki eman ahal izango dira.

Errekerimendua adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatzaileak eskaintza erretiratu duela ulertuko da, eta, hala badagokio, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeraren arabera.

Atal honetan aipatutako errekerimenduaren ondoren aurkeztutako dokumentazioan zuzentzeko moduko akatsak badaude, hiru egun naturaleko epea emango da horiek

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

zuzentzeko. Hori zuzenean jakinaraziko zaio lizitatzaileari, eta Mankomunitatearen kontratatzailearen profilean ere jakinaraziko da.

17. ADJUDIKAZIOA ETA FORMALIZATZEA

Kontratazio-organoak gehienez ere bi hilabeteko epean esleituko du kontratua, proposamenak irekitzen direnetik zenbatzen hasita.

Esleipena Kontratazio Organoak erabakiko du ebazpen arrazoitu bidez, eta lizitatzaileari jakinaraziko zaio, hark izendatutako jakinarazpenak jasotzeko bitartekoaren bidez, eta erakunde kontratatzailearen kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da 15 egun naturaleko epean. Esleipenak kontratuaren behin betiko baldintzak zehaztu eta finkatuko ditu. .

Lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-dokumentu baten bidez formalizatuta burutuko da kontratua; dokumentu hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikotan aurkezteko. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, bere kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortutako gastuak.

18. KONTRATUA EZ EGITEKO ERABAKIA ETA PROZEDURAN ATZERA EGITEA

SPKLren 152. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratazio-organoak kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia hartu ahal izango du, behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiak direla eta. Halaber, prozeduran atzera egin ahal izango du baldin eta zuzendu ezin daitekeen arau-hausteren bat atzematen badu kontratua prestatzeko arauei edo adjudikazio-prozedura erregulatzen duten arauei dagokienez. Kontratua ez egiteko erabakia hartzekotan edo prozeduran atzera egitekotan, kontratua formalizatu aurretik egin behar da, betiere aipatutako artikuluan ezarritako betekizunen arabera.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

III. KONTRATUA EGIKARITZEA

19. KONTRATUA EGIKARITZEAREN ARAUBIDE OROKORRA

Kontratua honako baldintza hauen arabera gauzatuko da:

- Kontratistak Plegu honetan, Baldintza Teknikoen Pleguan eta kontratistak aurkeztutako eskaintzan xedatutakoaren arabera burutuko du kontratua, bai eta kontratistak, hura interpretatuz, kontratistari emandako jarraibideen arabera ere.

- Lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren arloan indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapenak bete behar ditu kontratuak.

  Testuinguru horretan, proposamen teknikoan, lizitatzaileak adieraziko du zer hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei, esleipendun izanez gero. Kontratistak kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikagarritzat jotzen dien hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipen-ebazpenean sartuko da, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

- Horrez gain, kontratua esleitu ondoren langile horiei benetan aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen den informazio guztia eman beharko du kontratistak.

  Kontratistak, kontratua gauzatzen den bitartean, langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera aplikatzekoa den sektoreko hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, eta ordaindu beharreko soldata ezin izango da inola ere hura baino txikiagoa izan.

  Paragrafo honetan xedatutakoa exekuzio-baldintza berezia eta funtsezko betebeharra da SPKLren 211.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta, beraz, kontratua suntsiarazteko arrazoi bera ez betetzea, erakunde kontratatzaileak hala nahi badu.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

- Kontratua kontratistaren arrisku eta menturaren arabera gauzatuko da.

- Langile guztiak kontratistaren menpe egongo dira, eta berak izango ditu enpresaburu izateari dagozkion eskubideak eta betebeharrak; ezin izango zaio inolako erreklamaziorik egin erakunde kontratatzaileari, lan-harreman horien edo gainerako betebeharren ondorioz. Kontratista izango da kontratuaren exekuzioan lan egiten duten langileekin zerikusia duen edozein ezbehar edo erreklamazioren aurrean (judiziala edo judizioz kanpokoa) erantzule bakarra, norberarena edo balizko azpikontratazioena, eta erakunde kontratatzaileak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizun laboralik (laneko segurtasun, higiene eta osasunari dagokiona barne), ezta Gizarte Segurantzarekikorik ere. Era berean, kontratistak bakarrik bere gain hartuko ditu kontratua gauzatzeak eragindako ezbeharrek sor ditzaketen erantzukizunak.

- Kontratistak, bere jardueren esparruan eta bere kontura eta bere erabakiz egiten dituen datu pertsonalen tratamenduengatik, tratamendu horren arduradun gisa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruzkoan aurreikusitako betebeharrak bete beharko ditu, eta datu pertsonalen babesari buruzko Estatuko edo Europar Batasuneko beste edozein arautan aurreikusitakoa, baldin eta kontratua indarrean dagoen bitartean aplikatzekoa bada.

- Hauek dira exekuzio baldintza bereziak, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak ez-betetze kasuetarako aurreikusten dituen ondorioekin:
  - Ezinduen babeserako legeria betetzea, nahitaez kontratatu beharreko ezgaitasuna duten gutxieneko pertsonen kopurua egiaztatzeari dagokionez.
  - Lantokian segurtasuna eta osasunaren babesa bermatzea.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

20. KONTRATISTAREN LAN-ARLOKO BETEBEHARRAK

Kontratuaren funtsezko betebeharrak honako hauek izanen dira:

- Kontratuaren betebehar nagusia betetzea, klausuletan eta plegu administratibo eta teknikoetan ezarritakoaren arabera.
- Plegu honen 3. klausulan ezarritako exekuzio-epea betetzea.
- Lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapenak betetzea.
- Bere kontura, bere jardueran aritzeko behar dituen lizentzia eta baimen guztiak lortzea.
- Zerbitzuak ematea, unean uneko araudi sektorialean xedatutakoari jarraikiz. Horretarako, bai kontratistak bai langileek unean-unean indarrean dagoen araudiak eskatzen duen edozein betebehar betetzen dutela egiaztatzen duten ziurtagiri guztiak izan beharko dituzte.
- Kontratua gauzatzeak eskatzen dituen eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte eta galera guztien ordaina.
- Entitate kontratatzaileak kontratua behar bezala garatzeko eta betetzeko beharrezkotzat jotzen dituen zerbitzuak ematea, ordainketa osagarrirako eskubiderik gabe, hala nola, lan edo informazio bileretara joatea. Betebehar hori kontratua amaitu arte mantenduko da
- Lanuzteetan zerbitzuak betetzea. Zerbitzu horiek bermatzen ez badira, entitate kontratatzaileak ahalmena izango du zerbitzuak betetzeko behar diren kontratuak sustatzeko, eta kontratu horien zenbatekoa fakturaziotik kenduko da.
- Greba-aldian, benetan egindako zerbitzuei dagokien prezioa bakarrik ordainduko da.
- Langileak ordezkatzea, beren eginkizuna behar bezalako arduraz eta eraginkortasunez betetzen ez badute, gaitasunik ez badute eta zerbitzuak behar bezala betetzen ez badituzte.
- Langileak ordezkatzea, eritasun, opor, baimen, lizentzia, istripu eta abarren ondoriozko lan absentziak betetzeko, kontratatutako zerbitzuak modu eraginkor eta jarraituan ematen direla bermatuz. Gehienez ere hogeita lau orduko epean.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

- Agiri honetan eta/edo gai horretan aplikagarri den Estatuko edo Europar Batasuneko araudian ezarritakoaren arabera, datu pertsonalak babesteko arloan bete behar dituen betebehar guztiak bete eta behar bezala egiaztatu beharko ditu.

Klausula honetan aurreikusitako betebeharrak kontratuaren funtsezko betebehartzat hartuko dira SPKLren 211.1.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta, beraz, horiek ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da, erakunde kontratatzaileak hala nahi badu.

21. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA EGIKARITZEN DEN BITARTEAN HIRUGARRENEI EGITEN ZAIZKIEN KALTEAK DIRELA ETA

SPKLren 196. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratistak izango du kontratua egikaritzeko egin beharko diren eragiketek ekarritako kalte eta galeren erantzukizuna.

22. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik, SPKLren 205. artikuluan esanbidez adierazitako baldintzetakoren bat betetzen bada, lege horren 203., 206. eta 207. artikuluetan xedatutakoari jarraituz, baldin eta horrekin aldatzen ez badira lizitazioaren eta adjudikazioaren funtsezko baldintzak.

23. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

Kontratazio honek izaera pertsonaleko datuak eskuratu beharra eragiten badu, Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorretik eratorritako betebeharrak bete beharko ditu kontratistak, bai eta SPKLren hogeita bosgarren xedapen gehigarritik eratorritakoak ere (xedapen hori Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta hura garatzeko araudiarekin lotuta).

24. PRESTAZIOA HARTZEA ETA BERMEALDIA

Kontratua betetzat joko da kontratistak, kontratuan ezarritako baldintzen arabera eta erakunde kontratatzaileak nahi bezala, prestazio osoa egin duenean.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

Une horretan, erakunde kontratatzaileak erabakiko du harrera egiteko egoeran dagoen ala ez, eta ezarritako preskripzioekin bat datorren, eta, hala badagokio, behar diren jarraibideak emango zaizkio kontratistari, jasotzean antzemandako akatsak konpon ditzan.

Kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo akatsen ondorioz egindako lanak kontratatutako prestazioarekin bat ez badatoz, erakunde kontratatzaileak uko egin ahal izango dio, eta ordaindu beharretik salbuetsita geratuko da edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du.

Hori guztia, 25. klausulan aurreikusitakoa alde batera utzi gabe, erakunde kontratatzaileak dagozkion zigorrak eskatu ahal izango ditu, baita atzerapenagatiko kalte-galeren ordaina, kontratatutako prestazioak behar bezala ez gauzatzea eta/edo kontratuko beste edozein baldintza betetzea ere.

25.KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK KONTRATISTARI EZARRIKO ZAIZKION ZIGORRAK

A. Kontratua egikaritzeko epeak ez betetzea

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, berandutzen bada kontratua egikaritzeko epean (epe osoa zein, halakorik bada, epe partzialak), administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea (eta adjudikaziodunak bermea galdu), edo honako zigor hau ezartzea: dagozkion kalte-galeren kalte-ordainez gain, erakunde kontratugilearen alde, zerbitzua behar bezala ematen berandutzen den eguneko 200 euro.

Kontratista berandutzan eratzeak ez du entitate kontratatzailearen aldez aurreko agindurik beharko.

B. Prestazioa oker gauzatzea

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, kontratatutako prestazioak gaizki gauzatu baditu edo kontratuko beste edozein baldintza bete ez badu, erakunde kontratatzaileak kontratua suntsiarazi edo kontratua gauzatzen jarraitu ahal izango du, eta, azken kasu horretan,

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

erakunde kontratatzailearen alde, bidezkoak diren kalte-galeren kalte-ordainez gain, kontratuaren balio zenbatetsiaren %5eko zigorra sortuko da.

Kasu horretan, zuzenketa, betetze edo exekuzio egokirako benetan behar diren egunen kopuruari aplikatuko zaio zigorra.

Penalizazioak kontratistari ordainketa oso edo partzial gisa ordaindu beharreko zenbatekoak kenduz ordainduko dira.

Nolanahi ere, kontratua suntsiaraztea edo jarraitzea aukeratuta ere, erakunde kontratatzaileak bere kabuz erabaki ahal izango du kontratuarekin jarraitzea beharrezkotzat jotzen duen denboran, bere bitartekoen edo hirugarrenen bitartekoen bidez, eta bi kasuetan jarraipenaren kostua kontratistari jasanaraziko dio, kalte-galeren kalte-ordainei eta klausula honetan aurreikusitako gainerako ondorioei kalterik egin gabe.

26. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Entitate kontratatzaileak nahi izanez gero, kontratua suntsitzeko arrazoiak hauek izango dira:

a) Beste edozein prozeduratan, konkurtsoa deklaratzea edo kaudimengabezia deklaratzea.

b) Kontratistak epea betetzen atzeratzea.

c) Kontratuaren betebehar nagusia ez betetzea.

d) Gainerako funtsezko betebeharrak ez betetzea, betebehar horiek funtsezkotzat jo badira.

e) Prestazioa ezin izango balitz gauzatu hasieran itundutako moduan, eta ezinezkoa bada kontratua aldatzea plegu honetan ezarritakoaren arabera.

f) Kontratistak Kontratua gauzatzen den bitartean, bertan parte hartzen ari diren langileei soldatak ez ordaintzea, edo langile horiei aplikatu beharreko hitzarmenetan ezarritako baldintzak ez betetzea.

g) Oro har, kontratuko betebeharrak ez betetzea, Kode Zibilaren 1.124 artikuluan ezarritakoaren arabera.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

h) Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211. eta 313. artikuluetan ezarritakoak..

27. KONTRATUAREN LAGAPENA

Ez da bidezkoa, lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarriak izan direlako.

28. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak prestazioaren gauzatze partziala azpikontratatu dezake hirugarren batzuekin. Nolanahi ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 215. eta 216. artikuluetan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu azpikontratazio horrek.

IV.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

29. KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Agiri honetan oinarrituta egingo den kontratua administrazio-kontratua izango da, eta dokumentu honek eta berari erantsitako gainerako dokumentazio teknikoak arautuko dute. Horretan xedatuta ez dagoen guztiak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoa bete beharko du, eta, lege horren kontra ez doan guztian, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsia), maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua (zeinak partez garatzen baitu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea) eta administrazio publikoen kontratazioan aplikatzekoak diren kasuan kasuko gainerako arauak.

Administrazio-baldintza partikularren agiri hau eta espedienteari atxikitako gainerako agiriak bat etorri ezean, agiri honetan xedatutakoak izango du lehentasuna.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

30. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Administrazioari honako eskumen hauek dagozkio: kontratua interpretatzea, kontratua egikaritzeko dauden zalantzak argitzea, kontratua interes publikoko arrazoiengatik aldatzea, kontratuaren egikaritzearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna zehaztea, kontratuaren egikaritzea etetea, kontratua suntsiaraztea erabakitzea eta suntsiarazpenaren ondorioak zehaztea; betiere SPKLn eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen barruan eta haietan jasotako baldintza eta ondorioak betez.

31. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebatziko ditu; administrazioaren bideari amaiera emango diote organoaren erabakiek, eta zuzenean aurkaratu ahal izango dira administrazioarekiko auzien jurisdikzioan. Horrek ez du kentzen, hala badagokio, kontratazioaren alorreko errekurtso berezia jarri ahal izatea Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 44. artikulutik 60. artikulura artekoek araututakoaren arabera, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak araututako edozein errekurtso.

Azpeitian, 2021eko urriaren 15ean

Lehendakaria

Date:
2021.10.21
14:50:37 +02'00'

EGINBIDEA.- Plegu hau Mankomunitateko lehendakariaren Dekretu bidez onartu zen 2021eko urriaren 15ean.

Idazkaria-Kontuhartzailea

Date: 2021.10.21
14:51:22 +02'00'

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

	AZPEITIKO EDUKIONTZIETAKO SARBIDE-KONTROLARI MANTENTZE-LANAK EGITEKO, KONEKTAGARRITASUNA KUDEATZEKO ETA WEB BIDEZKO SOFTWAREA AHALBIDETZEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA *** CONTRATACIÓN PARA EL SERVICIO DE MANTENIMIENTO, CONECTIVIDAD Y SOFTWARE BASADO WEB DEL CONTROL DE ACCESO DE LOS CONTENEDORES DE AZPEITIA

I. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA

IDENTIFIKAZIO-DATUAK	
1. deitura, 2. deitura, izena	**NAN/IFZ**
Norberaren izenean	
Ordezkatzen dudan enpresaren izenean	
Ordezkatuaren sozietate izena:	
Ordezkatuaren IFK:	

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK	
Kontratuaren izena	**Erreferentzia kodea**
AZPEITIKO EDUKIONTZIETAKO SARBIDE-KONTROLARI MANTENTZE-LANAK EGITEKO, KONEKTAGARRITASUNA KUDEATZEKO ETA WEB BIDEZKO SOFTWAREA AHALBIDETZEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA	**2021ZER3**

Behean sinatzen duenak, jarduteko gaitasun juridiko osoaren jabe dela, eta bere izenean edo lizitatzailearen izenean,

BERE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DU

1.- Sinatzaileak eskaintza aurkezten duen sozietatearen izenean **jarduten** duela

2.- Ez dagoela Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 71. artikuluak aipatzen dituen kontratatzeko debeku egoeretatik bakar batean ere.

3.- Aldi baterako enpresa-batasuna da:

BAI, eta eskaintza aurkeztean, aitorpen honekin batera ABEEa eratzeko konpromisoa aurkezten da.

EZ

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

4.- Baimen/gaikuntza profesionalak, ekonomia- eta finantza-kaudimena eta gaitasun profesionala eta teknikoa ditu, edo, hala badagokio, dagokion sailkapena, HLKPko 16. klausulan eskatutakoa.

Kaudimen hori frogatzeko:

BAI Beste enpresa bateko baliabideetan oinarrituko da, eta horretarako idatzizko konpromisoa du.

EZ da beste enpresa baten baliabideetan oinarrituko.

5.-Adierazten dut eskaintza egiterakoan kontuan hartu ditudala fiskalitateari, ingurumenaren babesari, enpleguaren babesari, genero-berdintasunari, lan-baldintzei, laneko arriskuen prebentzioari eta ezgaitasuna duten pertsonen gizarteratzeari buruz indarrean dauden xedapenen ondoriozko betebeharrak, eta ezgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko jakin bat kontratatzeko betebeharra.

Halaber, adierazten du ados dagoela pleguetan ezarritako exekuzio baldintza bereziekin.

6.- Esleipendun izanez gero, kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei kontratua esleitu ondoren aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen den informazio guztia eman beharko duela.

7.-Bereziki, berariaz adierazten du eskaintza egiterakoan kontuan hartu duela lurraldeko sektoreko hitzarmen kolektiboa edo enpresa-itun onuragarriagoa langileei aplikatzen diena baino, eta honako hau dela (adierazi zein egunetan argitaratu den dagokion aldizkarian):

.....

8.- Atzerriko enpresaren bat bada Espainiako edozein ordenatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen da, kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, eta, hala badagokio, atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten dio.

9.- Ordezkatzen duen enpresa:

BAI, Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluko kasuetako batean dago.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

EZ dago Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluko kasuetan.

Erantzuna baiezkoa bada:

EZ du kontratuaren esleipenean parte hartzen, ordea, banakako proposamena aurkezten duen talde bereko beste inolako enpresarekin batera, ezta Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan jasotako kasuren batean dagoen ezeinekin batera ere.

BAI, kontratuaren esleipenean parte hartzen du banakako proposamena aurkezten duten talde bereko beste enpresa batzuekin edo Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan jasotako kasuren batean dauden enpresekin batera; enpresa horiek honako hauek dira:

IFZ/IFK	Sozietate izena

(*) Merkataritza Kodeko 42.1 artikulua: “Edozein sozietate taldetako sozietate nagusiak atal honetan aurreikusten den bezala eman behar ditu urteko kontu eta kudeaketa txosten finkatuak.

10.- Sekretu tekniko edo komertzialekiko lotura dela eta, konfidentzialtzat jotzen dituela ondoren aipatzen diren eskaintzako **dokumentu, informazio eta alderdiak**:

1.
2.
3.
……

Datu horiek konfidentzialak dira arrazoi hauengatik:

1.
2.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

3.

……

(Oharra: IKonfidentzialtasun adierazpena ezingo da enpresak aurkeztutako dokumentazio guztira hedatu ezta eskaintza teknikoko dokumentazio egiaztatzaile guztira. Kasu horretan, adierazpena neurriz kanpo dimentsionatzen bada, kontratazio organoak ebatziko du zein datuk eta/edo dokumentuk merezi dute horrelakotzat hartzea. Enpresak ez badu berariaz adierazi datu eta/edo dokumentu bat konfidentziala dela, ulertuko da aurkeztutako datuak eta/edo dokumentuak ez direla konfidentzialak. Halaber, eskaintzak aurkeztu ondoren, ez da onartuko konfidentzialtzat jotzea aurkeztu diren unean horrelakotzat adierazi ez diren datuak)

11.- Kontratuaren adjudikazioa eskuratzen badu, bere onespena ematen duela kontratuaren lizitazio-, adjudikazio- eta egikaritze-prozesuetatik ondorioztatuko datu guztiei gardentasun instituzionala emateko, harik eta prozesua amaitzen den arte..

12.-Sozietatea alta emanda dago Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren dagokion epigrafean.

13.- Sozietate horrek ez duela zerga zorrik administrazio kontratugilearekin, edo bermatuta dituela.

Esleipendun gisa proposatua izatekotan, Urola Erdiko Mankomunitateari BAIMENA EMATEN DIO zergetako (Foru Ogasunari) eta Gizarte Segurantzari dagozkion obligazioak betetzen dituen kontsulta dezan eta helburu horretarako beharrezko informazioa lor dezan. Kasu honetan ez da beharrezkoa izango dokumentalki egiaztatzea.[BAI] [EZ]

(*) Inolako aukerarik ez markatzekotan, ulertuko da datuen kontsulta EZ dela baimetzen.

Lugar y fecha:

Nombre empresa	firma

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

I. ERANSKINA. MODELO DE PROPOSICIÓN ECONÓMICA

IDENTIFIKAZIO-DATUAK	
1. deitura, 2. deitura, izena	**NAN/IFZ**
Norberaren izenean	
Ordezkatzen dudan enpresaren izenean	
Ordezkatuaren sozietate izena:	
Ordezkatuaren IFK:	

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK	
Kontratuaren izena	**Erreferentzia kodea**
AZPEITIKO EDUKIONTZIETAKO SARBIDE-KONTROLARI MANTENTZE-LANAK EGITEKO, KONEKTAGARRITASUNA KUDEATZEKO ETA WEB BIDEZKO SOFTWAREA AHALBIDETZEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA	**2021ZER3**

Jakinda zeintzuk diren kontratazio espedienteari dagokionez eskatzen diren baldintzak eta beharkizunak, proposatzen d(it)u honako prezio hau(ek) eta, hala badagokio, formula bidez ebaluagarriak diren gainerako elementuen eskaintzak.

ADIERAZTEN DUT:

Hitz ematen dut kontratua prezio honetan burutuko dudala:

A) Zati finkoa

Urtea	Prezioa	Oferta
Lehenengo urtea	28.080 €/urtea+ 5.896,80 € (%21eko BEZ-a)	..... €/urtea+ ..... € (%21eko BEZ-a)
Bigarren urtea	14.040,00 €/ 1. seihilekoa + 2.948,40 € (%21eko BEZ-a) 7.020,00 €/ 2. seihilekoa + 1.474,20 € (%21eko BEZ-a)	..... €/ 1. seihilekoa + ... € (%21eko BEZ-a) ..... €/ 1. seihilekoa + ... € (%21eko BEZ-a)
Hirugarren urtea	14.040,00 €/ urtea + 2.948,40 € (%21eko BEZ-a)	..... €/urtea+ ..... € (%21eko BEZ-a)

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

B) **Zati aldakorra**

Elementua	Gehienezko prezioa	Eskaintza
UP	290 €/alea	..... €/alea
Ixteko motorra	55 €/alea	..... €/alea
Kakoa	16 €/alea	..... €/alea
Kablea	50 €/alea	..... €/alea
Bateria	50 €/alea	..... €/alea
Eguzki plaka	40 €/alea	..... €/alea
Lanorduko prezioa	50 €/ordua	..... €/ordua

Eta aipatutako prezioan sartzen dira kontzeptu guztiak, zergak, gastuak, tasak eta edozein zerga-eremutako arbitrioak barne, baita kontratistaren etekin industriala ere.

2º) Ezagutzen ditudala Baldintza Teknikoen Agiria, Administrazio Klausula Berezien Agiria eta kontratu hau arautuko duten gainerako agiriak. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.

3º) Ordezkatzen dudan enpresak betetzen dituela irekitzeko, instalatzeko eta funtzionatzeko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen betekizun eta betebehar guztiak.

2021eko,.....(r)en..... (e)an

Sinadura

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

III. ERANSKINA.- JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOAK JASOTZEKO DATUAK

IDENTIFIKAZIO-DATUAK	
1. deitura, 2. deitura, izena	**NAN/IFZ**
Norberaren izenean	
Ordezkatzen dudan enpresaren izenean	
Ordezkatuaren sozietate izena:	
Ordezkatuaren IFK:	

* Aldi baterako enpresa elkartea bada, eredua egokitu egin behar da, aldi baterako enpresa elkartean izango den enpresa bakoitza ordezkatzen duten pertsona guztiei buruzko datuak gehitzeko

ADIERAZTEN DU(TE)

Kontratua (*izena eta espediente kodea*) esleitzeko prozedurari buruzko jakinarazpen eta komunikazioen ondorioetarako:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK	
Kontratuaren izena	**Erreferentzia kodea**
AZPEITIKO EDUKIONTZIETAKO SARBIDE-KONTROLARI MANTENTZE-LANAK EGITEKO, KONEKTAGARRITASUNA KUDEATZEKO ETA WEB BIDEZKO SOFTWAREA AHALBIDETZEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA	**2021ZER3**

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoetarako datuak honako hauek dira:

JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOETARAKO DATUAK			
Kalea, plaza, hiribidea…	**Zk.**	**Solairua**	**Eskua**
Udalerria	**P.K.**	**Probintzia**	
Telefono finkoa	**Mugikorra**		
Abisuetarako helbide elektronikoa:			

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

Hartzailea:				
Jakinarazpena/komunikazioa jasotzeko aukeratutako hizkuntza:	Euskaraz		Gaztelaniaz	

2021eko,.....(r)en..... (e)an

Sinadura

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus